

**SABIN MUNIATEGI OLERKARIAREN
JAIOTZAKO MENDEURRENA
(1912-1990)**

Sarrera

Hona beste mendeurren bat; oraingoan, arteagar batena. Itsasgizona ogibidez, baina euskal letretako langile fina bokazioz. Olerkaria, zehatzago esanda. Gautegiz Arteagan jaioa, itsasoa eta lehorra zituen auzoan. Gazte sentibera eta samurra izanik, liluragarri zitzaizkion bata nahiz bestea. Baina *primum vivere* esan ohi zuten latindarrek, eta, hala, aitaren eta familia-ko beste batzuen bidetik, itsasorantz eman zuen pausoa. Itzuliko naiz geroago, haren bizitzako zertzelada batzuk agertzera. Orain, sarreratxo honek beste zidor batetik narاما.

Garai hartan Larrean egiten ziren *Karmel* aldizkariaren idazle-teen bileretan eta batez ere urteroko *Oleri egunean* –1970, 1980 eta 1990eko hamarkadaz ari naiz bereziki– hutsik egiten ez zuenetakoa genuen. Harremanetarako atsegina, euskal gaietan bere pentsamoldekoak ez zirenak ere, euskaltzaleak izanez gero, onartzen eta guztiz errespetatzen zekiena. Lorratz gozoa utzi zuen nire oroimenean, eta batez ere, lorratz sakona *Oleri* eta *Karmel* aldizkari honetan. Horregatik, asun artean sartua dela dirudien gizarte erre eta samindu honetan, halako gizaki jator eta gozoen hutsunea bizikiago nabari da.

Haren jaiotzaren mendeurrena dugun honetan, ezin, bada, jaramonik egin gabe eta mutu geratu hura ezagutu genuenok eta batez ere hark maite zuen aldizkari honetan geure apurra

eman nahirik ari garenok. Esker onarekin batera, *Karmelen* omenaldi antzeko bat izatea nahiko nuke idazlan xume hau.

Gerra aurreko beste idazle batzuen antzera, ez da inola ere merezimendu gabea haren jarduera literarioa. Aukera gutxi izan zuen bere barneko bokazio hori lantzeko. Aldats gora eta toki gaitzean bidea ebakiz jardun zuela esango nuke. Bai, autodidakta gisa, apurka-apurka bere burua trebatuz joan zen. Ez zen mutikotan apaizgai edo fraidegai izandakoa. Herriko eskolan egin zituen lehen ikasketak, haien osagarri, Gernikako Agustindarren ikastetxean beste bi urte ikasten eman bazituen ere. 18 bat urte zituela, bizibeharrak eraginda atzerrira, Filipinetara, joan zen eta hortik atera kontuak zer aukera izango zuen formazio literario ona lortzeko... Baina gehiago egiten omen du egiaz nahi duenak ahal duenak baino. Bihotzondoa hartzeko prest duenari edozerk eragin diezaioke. Non eta Filipinetan euskaltzaletu zen eta han hasi zen olerkiak idazten; lehenbizi bere gogoko poeten lanak itzultzen eta gero bere-bereak sortzen. Honela dio Luis Arostegik haren *Olerki Guztiak* liburuaren sarreran:

“Eguneroko artuemonak bultzatuta gazteleraz egiten oitu zan euskaldunen artean be. Ez jakon au atsegin izan Periko Telleria *osabeari* (amaren lengusuari), eta *norbere izketa izten dauanak norbere ama izten dauala* bota ei eutson. Eztenkada onek eraginda aurki, eta Filipinas-en bere inguruan egoan euskal zaletasunak eraginda be bai bearbada, *emen asi nintzan lenengoz euskeraz idazten. Aldi onetako olerkiak, itzulpenak 22 ta beste 20 neureak bildumatu nebazan liburu antzera ezarririk* Biotzeko Lorak *izena ta emen dirae oraindik neugaz neure lenengo zirriborruak*”.

Atzerrian ondu zituen olerkiak, etxe eta aberri minez idatzia direla dio Luis Arostegik aipaturiko sarrera horretan. Hau haren belaunaldiko beste batzuegan ere hala gertatzen da, esaterako, Aurraitz olerkariarengan (Balendin Aurre-Aprreiz).



Sabin Muniategi

Eta beste ezaugarri batzuk ere modu berdintsuan errepikatzen dira batzuen eta besteengan. Hau da, herriko edo inguruko herriren bateko eskolako lehen ikasketez gain, nekez izan dute aukerarik goragoko ikasketarik egiteko; beren burua janzten eta osatzen arauturiko zentroetatik at eta autodidakta gisa aritu direnak ditugu gerra aurreko euskal idazle asko; idazle laikoak halakoak direla gehienak esango nuke. Horrez gainera, barne-bokazioa aipatu dugu gorago. Barne-bokazio hori, Sabin Muniategirengan eta garai hartako beste askorengan, abertzaletasunak isiotua zen. Hona Balendin Aurre-Apraizez *Karmel* aldizkarian idazten genuena (2007-2):

“Orduko ingurumari abertzaleak harturik, hainbestek ekin eutsien aldizkari eta egunkarietan idazteari. Sabin Arana-Goirik lehenago eta “Aitzol” eta beste batzuek geroago ereiniko hazia erneaz doa. Aitzolek ideiak argi ditu: Euskal Herria komunitate kultural legez harturik, olerkiaren betebeharra garbi ikusten dau. Olerkiak herria iratzartzeko dauan egitekoaz dihardu Lauaxetak be. Honek, olerkari sentibera eta bikaina izanik, hur-hurretik sumatzen dau eragin ongarri hori. Hau da, olerkia ez da harentzat ederraren bilaketa eta eraiketa bakarrik, baita Herriaren eraikuntzan erabili leiteken bitarteko ezin hobea be. Hona haren berbak *Euzkadi* egunkaritik hartuta:

Olerkarijak langorik eztago erri bat itxartu-erazoteko, lur barnian datzan azijak zelako ots biguna egin daruan be, entzuten baitau berak.

Dana dala, ingurumari abertzaleak harturik egozan guztiak ez ziran idazle eta gitxiago olerkari. Idazlantxo batzuk edo bertso banakak han-hor-hemen argitaratzea, gehiagoko barik, ez da nahiko norbait idazle edo olerkari egiteko. Lehengo aipamenaz gain, Lauaxetaren beste bat ezarriko dot hemen, hari-harira datorrena. Holantxe dino *Arrats-beran* olerki-liburuaren sarreran:

Ludi onen bestaldez loratzen diran landaraen usañak goxalde bakoitxak dakarkidaz. Auxe da neure sakona! Bestiak entzuten eztaben egal-otsa neure gelara yatorr eta barneko zuzatz oneitatik txorijak aidatu ziranarren, abar-dardarea ezta amaitu.

Beraz, dohaina da, horretarako dei sakona. Barru minberari bihotzondoan zimikoa egiten deusana; olerkaria bere sentipenen gordelekuan, ederraren ikuspegian ezarri ohi dauana. Hortik aurrera, sentimendu gozo nahiz saminez, bihotz-dardara fin eta ederrez jaso dauana, adierazo be halantxe egin behar dau, gizakiaren gogoan sorturiko mirari hori, erne orduko itoztea tamalgarri litzateke eta...”

Bizitzako zenbait argibide

Sabin Muniategi Astorkia Gautegiz Arteagan (Bizkaia) jaio zen 1912ko abenduaren 11n, Agirreta auzuneko Portu-Pantxikone izeneko baserrian. Gurasoak eta sei neba-arreba izan ziren, hiru gizonezkoak eta beste hiru emakumezkoak; gurasoak, Felix eta Luzia. Gizonezkoek aitaren biderei jarraituko zioten, hau da, itsasgizon izango ziren. Aita berezko itzala zuen gizona zela diosku Luis Arostegik bere sarreran. Itsasgizona eta mundu asko ikusia, irratia entzutea eta irakurtzea atsegin zuena. “Sabinen izakerea, zati baten beintzat, aitaren jasekoa izan ei zan”.

Sabinek 13 urte zituela jaso zuten etxean anaia zaharrena Ingalaterran gaixoz hil zelako berria.

Umetan, bere herri eta auzoko mundutxoan izan zuen giroa, hango jolas eta abenturatxoak, baserri-izenak, ametsak... bere umetako eta betiko lagun bati eskainitako *Arteaga* izeneko poema luze batean agertzen ditu.

Bizibeharrak eraginda, 1929an 18 urte betetzeko, urrutira joan beharra izan zuen Muniategi gazteak. Filipinetako Ilo-Ilo-

ra, amaren lehengusuak bizi ziren lurraldera. Honela dator aipaturiko *Olerki guztiak* liburuaren sarrean:

“*Claudio López* ontzian, (...) eldu zan Manilara. Bere jomuga, baiña, Basai ugarteia: angu Bais izeneko errian eta Basak landetxean asi zan lanean azukera kaiñabera artean. Administradore izatea lortu eban laster Sabin gazteak. Lan eta gizarteko artuemonetarako bearrezko ikusi ebanez, malai jatorriko bisaiera ikasteari ekin eutson, *ango izkuntza ta ango lur maitasunez*.”

Urte bi ondoren Manaplara aldatu zan, Nerbion eritxon landetxera, emen be lan bardiña burutzen ebala”. Hemen hasi zen, gorago esan dugunez, amaren lehengusu batek bota zion zirrikada hark lotatik iratzarrita bezala, euskaltzaletzen eta olerkiak idazten; hauen artean, erdiak baino gehitxoago itzulpenak dira eta gainerakoak, bere-bereak. “Itzulitakoen artean Longfellow, Lamartine, Victor Hugo, Verlaine, Alarcón Meléndez, Maeterlinck, Lessing, Villaespesa eta Unamuno aurkitzen dira. Aldi berean, 1933-34, olerki bilduma bi osotu ebazan, bata euskal olerkariena, eta erdal olerkariena bestea. Lenengoak *Euzkadin* artutakoak dira: Lizardi (hogei olerki), Udalaizpe, Urre, Tene, Mañariko, Arana-Goiri, Garate, Sota, Ametzaga, Agirre, Zubiaurre, Zugazaga, Erletxue, Jautarkol, Sokoa, Endaitz, K. Enbeita, Kimu, Basarri, Iruñatar, Ibaialde”. Erdal olerkiak literatura unibertsaleko liburu batetik jaso zituen. Hauek ziren autoreak: Schiller, Gabriel y Galán, S. Rueda, M. Unamuno, Rosalía de Castro, S. Pellico, Torcuato Tasso, Lope de Vega, Fr. Luis de León, Victor Hugo, Camoens, Baudelaire, Heine, Dante, Goethe, Chocano, Poe, Selgas, J.R. Jiménez, Prudhomme, Valle Inclán, Byron, Leopardi, Carducci, Rubén Darío, Jorge Manrique, Calderón, Metastasio, Turgenev, Santa Teresa, J.M. Heredia, E. Marquina, Trueba, Góngora, Becquer...

Bera bizi izan zen Filipinetako herrialde hura bihotzean sartu zitzaion. “Rizal´en aberri laztana”, “Nire biotzean zagoz es-

ker oneko biotzaz / Filipinas eder!” (*Bizialdi urrun bat gogoraturuz*). Dena dela, bost urte han egin ondoren, etxerako bidea hartu zuen “President Adams” ontzian. 1934ko Gabon aurrean etxeratu zen. Ez zekien ongi itzulera hura behin betikoa izango zen, ala, etxe aldean oporraldia igaro ondoren, berriro itsasoa zeharkatuko zuen. Duda-mudatan zebilen zer egingo. Bidaia honetan lagun izan zuen ugazaba gaztea, nafar jatorrikoa aitaren aldetik, zirika zeukan berriro Filipinetara joan zedin. Bartzelonan ere egonaldi bat egin zuten eta zalantzen mataza artetik irten ezinik jarraitzen zuen. Azkenik, Euskal Herrian gelditzea erabaki zuen, baina argi dago ez zela bero-beroan harturiko erabakia, gauzak ongi azterturik, barrukoak eta kanpokoak, ustez hoherena zenaren bila, harturikoa baizik.

Pantxikonen lan intelektualerako gela bat atondu omen zuen, irakurtzeko, idazteko eta estudiorako behar zituen gauzez hornitua: mahaia, liburu eta paperak gordetzeko apalak, idazmakina... “Gero, gudaldian, irabazleak baitu eutsoena” dio Luis Arostegik. 1935eko abuztuan hasi zen *Euzkadin* idazten. Olerkiak, itzulpenak eta hitz lauzko lan batzuk ere bai. 1936an argitaratu zuen Bilbon *Goiz-Aize* olerki-bilduma. Bilduma honetan *Euzkadin* aurreko urtean zehar argitaratutako olerki askori ere toki egiten zaie. 1937an *Egunan* eta *Gudarin* argitaratzen dira haren hainbat olerki.

Arteagako olerkariak zituen hainbat oroitzapen agertu zizkigun A. Santi Onaindiak hura hil berri zela *Karmel* aldizkari honetan (1991-1). “Gomutaki-tantak” jarri zion izena lantxo hari. Gerra garaiaz hau dio:

“Ni Elgeta ta Intxorta aldean *Kirikiño* batailloian ibilli nintzan; Muniategi, ostera, Muñatonesen, Elorrión, intendentzian; joan eta hogeitau bat egunera, Elorrioko Guda etxeak izparkari ta gudari-sustatzaile izendatu eban; orduan be olerki naikoa ondu ebazan, *Euzkadin* argitaratuz”.

Luis Arostegik ere hitz egiten du “Elorrioko Guda etxetik *Euzkadira* bidali zuen idazkiaz eta garai honetan egiten zituen olerkiez. Idazki hori alai zela dio eta ongi erakusten zuela gudarien arteko giro alai baikorra eta herriaren esku-hartzea. Eta aldi honetako olerkirik gehienetan ohiko gaiak agertzen zituela eta gutxi zirela gudu-gaia zekartenak. Baina hasierako adore eta alaitasun hori, ikusiak ikusi, behera etorri zela eta samin bihurtu:

“Geroago, baikortasunak atzera egin dau: *‘Intxortarantz jarrita / ene begiok mendirik mendi / aberriaren samiña darakuste’*, *‘itaunak eta itaunak erantzunge’* (Arrats beran, 178). *Bai dakit bai* olerkiaz gudariak adoretu nai ditu: *‘Oi, ene gudari lagun / alaitu arpegi motel ori’*, eta Lauaxetaren bertsoz emoten dautso amaia: *‘Dana emon bibar yako / maite dan azkatasunari’* (181). 1937.eko *Elantxobe* olerkian erriari begiratzten dautso: *‘Oi dardaraz akust erri gaxo / itxasoaren begi!... / dardaraz gudeak ekarritako / oñaze mingotsez’* (199). Batez be *Negarra* (202) eta *Gure ikurrinpean* olerkietan, erri eta etxe *austuta, birrinduta* (208) ikusi ondoren baikortasuna estaldu eta olerkariaren garrasia entzuten da”.

Bera arteagarra izanik, hau da, Gernika ondokoa, hiri honen bonbardatzea berariazko eran bizi izan zuen; triskantza eta sarraski izugarri haren lekuko zuzena izatea egokitu baitzitzaion; “Gernika´ko triskantza gogoratuz” olerkian kontatzen du zertzelada ugariz eta batez ere sentimendu biziz; ondorengo bi ahapaldi hauei erreparatu diet batez ere, indar handiz azpimarratzen dutelako olerkariaren lekukotasuna: *Beren joan-etorritzako jardunketa luzez / Egazkiñak an ibili ziran bai, jo-ta ke, / Gau ongarri, babesgarria etorri zan arte / An ibili ziran gogor eriotza ereiñez / Ta, nasai asko goitik guri egiten barre. Ogetabost urteko neure begi argiakaz / ikus nebazan Gernikako inpernuketak; / iñoiz aztuko ez diran sugar erreketak, / neure begiakaz ikusi nebazan begiakaz / egazkin bidez egindako eriotzaketak.*



Sabin-en gurasoak

Baina, Gernikako bonbardaketa eta triskantzak utzitako bihotzeko samin eta erre-sunda hori nolabait hustu beharra zuen, nonbait, hau da, olerkari gisa paper zuriarekin asaskatu beharra eta “Gernika” izeneko olerkia idatzi zuen. Hemen esaten digu, burua gorde nahirik, Forurako bidea hartu zuela.

Haren bizitzako zenbait argibide eman nahirik ekin diogu ataltxo honi, baina bidean haren olerki batzuetan gelditu gabe ezin aurrera egin. Izan ere, bizitza eta olerkia harengan hain estu ageri zaizkigu bat eginik...! Dena dela, itzuliko naiz xehetasun horretara beren-beregi olerkiei begira jartzean; orain, jo dezadan aurrera *Olerki Guztiak* liburuaren sarrera gidari dudala:

“Berak anai-arreba gazteai ebakuaten lagundu eutsen, Bermeoraiño, lenengoz. Gero batallioagaz Santander´erantz abiatu zan. Laredon izan ziran atrapatuak. Illebeta bi inguru Santoña-ko baituran igarota, Muniategiri Canfranc´era joatea suertatu jakon, langille-batalloian lan egiteko. (...) Oindiño Begoñako Karmelon (espetxe biurtuan) izan zan espetxeratu. Irabazleen epaillentzat naiko zio egoan, orretarako: gudari zan, euskal idazlea, abertzalea, erriko batzokiko lendakariaren semea. Elgezabal abogadu gernikarrak, sor Luzia frantziskotarra Ibarrangeluko alabea be bitarteko zuurra izan zala, lortu eban, Sabin urtebete garrenean kartzelatik ataratea”.

1940an kanpoan zen eta lan bila hainbat ate jo omen zituen, bizimodua antolatuz joateko. Amaren nahiari jaramon eginez, itsasgizon izango zen. Lehenengo “Castillo de Ampudia” ontzian. Gero, 1941etik 1956ra, Rezolan, itsasoan, sartu zen, maiordomo karguaz. Azkenik, enpresa berean, baina lehorrean lan egin zuen, Donostiako kaian, ateratzen zen zementuaren kontua eramanez (1956-75).

Lan iraunkorra zuenez gero, familia berria eratzean jarrita zeukan gogoia eta Maria Pilar Bereziartua donostiarrarekin ezkondu zen 1949an. Hiru alaba eta seme bat izan zituzten. Donostiako Erreran bizi ziren. Azken bi urteetan, 1988z gero, Sa-

bin gaixo samar zegoenean, familia Errenteriara aldatu zen. Elkar ezagutu berri, bata bizkaitarra eta bestea gipuzkoarra, harremanetan erdarara jotzen zutela diosku Arostegik, baina laster batean hartu zutela aurrerantzean beti-beti euskaraz egiteko erabaki sendoa, eta baita hitza ongi bete ere.

A. Santi Onaindia eta biak oso maite zuten elkar eta maiz izaten ziren elkarrekin. *Milla Euskal-Olerki Eder* libururako olerki bila ari zela jarri zen gure karmeldarra euskal olerkariekin harremanetan eta literaturazalea eta jendearekin atsegina izanik, adiskide ugari eta onak bere inguruan biltzea lortu zuen. Orduan ezagutu zuen Sabin Muniategi ere. Hona harreman horietaz idatzi zituen zenbait lerro:



Sabin jaio zen basarria

“Ni neure *Milla*... liburua ateratzean, bere billa ibilli nintzan, eta azkenez, 1954rantz, Donostiako kaian, bere eguneroko lanean, aurkitu neban. Arrezkero guztian, adiskide miñok, estu-estu euskal olerkigintzan jardunak gara. *Olerki*-n idatzi oi eban eten barik, 1962tik aurrera; urtero etorri oi zan Larreako *Olerki-Egunera*; ainbat sari eskuratu ebazan; nik Donostiara joan eta astia nebanean, sarri joan oi nakion agerraldi bat egiten, beti txeratsu artua”.

Etengabe idazten zuela *Olertin* 1962tik aurrera dio Santi Onaindiak goiko lerroetan, baina ez dio erreparatu 1937tik 1962ra arteko isilaldi luzeari; ez du aipatzen behintzat. Luis Arostegik bai erreparatu dio eta harridura pitin bat agertzen duela esan behar:

“1937.etik 1962.era bitartean eten luzea aurkitzen dogu Muniategi´ren olerkigintzan. Gerra osteko giroa, itxasoko lana, argitaratzeko biderik eza izan bear zioak. Bitarte horretako olerki bi ezagutzen ditugu: *Libe*, 1940.ekoa (aldakera bi), eta *Itz argi-korrezko* (Urkiza argitaratzaileak 1945 c. Kokatzen dauana). Muniategi oso zeatza zan idazkiak zaintzeko; beraz, ez ebala idatzi tarte orretan atara bear dogu, arrigarria izan arren ain berebiziko dei-griñaz olerkigintzan asi zanaren utsune luzea”.

Urte askotako isilaldiaz gogoeta eginez, arrazoietako bat argitaratzeko biderik eza izan bazen, 1962az gero, *Olertin* eta *Karmelen* izan zuen abegi eta lagunarte atsegina. Horietan izan du ondorengo urte guztietan bere olerki-txoko gozoa.

Hartaz zenbait adituk esandakoak

Gerra aurrean, lehen olerkiak argitaratzen hasi zenean, aire berria euskal letretara zekarren gazte bezala, ongietorria egin zioten. Izan ere, berariazko zerbait ikusi zuten harengan. Gainera, ez zen edonor gorespen-hitzak zuzendu zizkiona: Esteban Urkiaga “Lauaxeta”. Bi aldiz agertzen dira, Julen Urkizak biltzen dituen, Lauaxetaren oharrak Sabinen olerki-sen berezi hori gorai patuz; *Euzkadira* bidalitako bi olerkitan hain zuzen ere. Behin, *Lilluratuarena* olerkian (159) eta beste behin, *Bioztaren deia* olerkian (164). Hitz hauek datoz hurrenez hurren bi olerkien azpiko oharretan:

“Olerkari on bat agertu yaku. Orain arte, be, esan dogu, baña berriro esan nai dogu. Muniategi gastiak zer egin daiken igarri geinke. Abixen au buruban artu begije geure elerti-zaliak”.

“Olerkari barri onek eztakigu zer daukan, baña euzkerek eztauz entzun gaur arte olako gauzak. *Goiz-aize* liburu ederraren egilliak egun zoruntsubak ekarriko dautsoz geure izkuntzeari. Bere txinta edo abestia dauko gero! Norbaitek esan dausku: rarua dozu! Biar ba baña *raro* batzuk ondo yatorkuz”.

Goiz-aize liburuaren hitzaurrea Lauaxetak egina da. Hainbat lerro azpimarratu ditugu handik. Hasieran, orokorki, olerkariaren izaeraz eta eginbeharrak ari da; olerkaria zerk bereizten duen gainerako pertsona arruntengandik... “Udabarririk ederrenaen usañak atz-puntetan geratu yakoz”. “Artotzaetan axemia ibilli dabillan legetxe, olerkarijaren ahapal-artian, be, goiko Arnasa dabil”.

Gero, Sabinen liburuan barneratzera dei egiten dio irakurleari: “Zabalduegixu idaztiño au”. Eta honela jarraitzen du: “Muniategi´tar Sabin, olerkari gaste-gastiarena dozu. Bizkai´ko itxaso arraren urdiña dauko begi-barnean. Eder eta Onak eurentzat autetsi eben. Buru ameskorra eukan eta aruntz-onuntz ibilli ixan da bere euzko-txapela buruban ebala. Ondo ikasi eban: *Atzerrijan lurra garratz, oña ipiñi egik baratz*. Edo beste a: *Atzerri, otserri*.”

Muniategi´k dardara, ikara barrija dakarzkigu. Odei zadortsuben itsurak, palmondoen amets-nayak, Kolonbo´ko belaan baltza. Gaur arte ixan doguzan olerkarijakandik zerbaitek berestu darua. Bere begijak daukaz.

Gitxigan aurkitu daikegu gaste onengan aurkitzen dogun ederti-miña. Gauza guztijetan idoro darua edertasunaren zantzuba. Euzko-Elertijak asko itxaron daike mutil onengandik”.

Hizkuntzaren eta aditzen erabileran zenbait akats antzeman arren, horiek, dakarren aberastasunaren ondoan, ez direla aintzat hartzekoak deritzo. Eta azkenerantz, hau dio:

“Rabindranath Tagore´ren antza emoten dautsagu bere idazlanetan. Arek legetxe ixadija maite darua. Gogai sakonak ezta-

rabiltz, baña bijotzeko orijorik gozoenagaz igurtziten dauz ikuskixunak-eta.

Lizardi il zanian itun gengoan; gaur pozik gagoz”.

Luis Arostegik *Olerki Guztiak* liburuari egindako sarrera askotan aipatu dugu idazlan honetan. Amaierarantz, berriro ere berari utziko diogu hitza, Sabin Muniategi olerkariatz iritzia eman diezagun:

“Muniategi’k baditu bere mugak, nire uste apalez. Aipatu dogun ugaritasun larregia. Ugariegiak olerkiak, bein eta barriro gai bardiñak edo antzekoak errepikatuz. Ez eban, jakiña, olerki guztietan gorengo lirika lortzeko asmoa izan, eta beraz aukeraketa egin bear da bere benetako eta azken lirika aurkitzeko. (...) Gizarte eta anaitasun gaietan nozik bein moralismo kutsua asmatu leiteke: gizabidezko gogapen eta sentipen garai moralak, baiña poesi gitxiagokoak.

Muga oneek gorabera, baiña, Muniategi klasiku bat da euskal lirikan. Klasikua: bere poesi-bidean betetasunera eldu dan olerkaria, eta, beraz, erriarentzat ondasun orokor eta erreferentzi-puntu biurtu dana.

Gizonagandik ur bizi, lan egin eta abestu dauan olerkari onek beti zaindu dau lirika mailla goitia, zintzoa izan jako bere poesi-deiari beste ezegaz naasta barik. Izkuntza poetikua menperatzean bikaiña da. Errekurso artifizial barik, sinbolo unibersal sakonak eta izkera kreatzaillea erabilliz, erriaren izkuntza bere ederrera eta betetasunera jaso dau.

Lenengo olerkiak gerokoakandik, geien baten, naiko urrin geratzen dira. Gerokoak dotoretasun, malgutasun eta sakontasunean aurrera egin dabe. Baiña orduan be Muniategi, bai gaiak ikuskeran eta bai izkuntzan berezko eta fresko agertzen zan. Ordurik ona Muniategi, berezkotasuna galdu barik, azi eta sakondu egin da bizitza eta poesi bizikuntzan, eta lirika izkuntza gainak lortu ditu”.

Azkenik, itzulpen ugari eginik, erdal poeta askorekin izan zituela harremanak dio aztertzaile honek. Harreman horiek nahitaez izan beharko zuketela eragina berarengan, baina nekez argitu daitekeela zehazki norena: “Ez dau biderik artu iñoren kontra, ez iñoren alde; ez jako iñongo eskolari lotu. Ezagupen aberats orretatik artu ebazan gogoko egokiozan baliagarriak, baiña batez be, moden gaisetrik, zabaltasunean eta norbere bidea jarraitzeko askatasunean sendotu zan”.



Sabin eta Maria Pilar ezkontza egunean

Bizitzaren eta poesiaren arteko lotura estua

Haren obraren sakonean sartu gabe; ia gaztelu horren ataritik bertatik –pixka bat azterturik eta adituei entzunik, hori bai-arteagar hau poesiaren barnean ez bada, hur-hurrean bizi zela ateratzen dugu; areago, poesiari barnetik zerion ederraren lilu-

rak harrapaturik eta harekin zeharo konprometiturik. Mundua, izadia, pertsonak... begi horiekin ikustera ohitu zen. Hortik datorke hain olerki-emaitza ugaria eta askotarikoa, bizitza bera ere ugaria eta askotarikoa delako. Hortik atera daiteke, tokiak, bidaiak, gertakariak, pertsonak... olerkitan hezurmamiturik eta irudikaturik uztea, argazkilari batek bere makinaz egiten duen antzera. Hortik, bizitza bezala, olerkiak ere mota askotakoak izatea. Adituek eta haren poesia aztertu dutenek esaten digute ez dela barrunbe sakonetara bidaiak egitekoa haren poesia, ezta korapilatsua ere. Nahiko erraza, azpildurarik gabea. Horretan zerikusi handia izan ohi du sinboloen eta metaforen erabilera. Honetaz gogoan izatekoa da L. Arostegik dioena: “Muniategi´k poesi-izkera zuzena dau. Alan be, sinboloak badarabiltz, euren berezko gaitasunagaitik beste zeozer adierazten daben irudiak. Emen gogoan doguzanak sinbolo errealak dira: sinbolo orreek euren izatean be badauke poesi baliorik; baiña, batera, eder orretan beste zer bat adierazteko gaitasuna dabe. Euren edertasuna ez datza sinbolo izatean bakarrik (beste zer bat adieraztean); baiña berezko poesi-balioa andiagotu egiten da sinbolo-gaitasunaz erabiltean”. Lauaxetak honela dio: “Gogai sakonak eztarabiltz”. Eta beste pasarte batean: “Muniategi´tar Sabin´en bertso oneik errijak berak onartuko dauz, ulerterezak dira ba-ta”.

Bera ere olerkigintzan erraz ari delako ustea izan dezakegu. Arnasa hartzea bezala, berez-berez datorkiola inspirazioa eta horren ondorioz, unean-unean, adierazpen eta hitz egokiak. Gorago aipatu dugun argazkilariaren antzera, ikuspegiaren ederrak bihotzondoa ukitu orduko, haiek olerkitan adieraziz doala. Baina olerkigintzan noizbait aritu edo saiatu denak ongi daki berezko iturri oparo eta errazik ez dela. Ia beti joan egin behar ur bila eta osin gaitzetik pitinka-pitinka atera. Bertsolari batek esaten omen zuen, bertsoan etorria aipatu ohi dela, baina bertsoa berez ez dela etortzen; ekarri egin behar dela, ongi kostata eta nekearen nekez ekarri ere... Beste horrenbeste eta,

beharbada, areago esan behar olerkigintzaz. Esaera zahar bat etortzen zait hemen gogora, hari-harira datorrena: *Ongi eta erraz, usoak begaz*.

Askotariko olerkiak dituela esan dugu. Askotarikoak bai olerkien muinari, bai ahapaldien luze-zabalerari eta metrikari dagokienez. Olerkien muinari dagokienez, badira pixka bat narratibo erara taxutuak; badira egilea dena emanda aritu denekoak, hau da, lirikaren goiko hirirantz hegaldatu delako zera irakurlearengan uzten dutenak. Ahapaldiei dagokienez, luzeak asko dira. Azken aldiko olerki asko hamalaudunak edo sonetoak dira. Dirudienez, azken urteetan sonetoetan aurkitu zuen bere olerkientzat molde egokia.



Sabin mutikoa

Haurrentzako olerkietan ere aberatsa dugu arteagarra. Lauaxetak, beste gauza batzuen artean, horri ere erreparatu zion. Haren hitzak aipatuz eta hari hark hain gogoko izan zuen olerkia hona aldatuz amaituko dugu:

“Umientzat olerkijak egitia, ezta erreza. Gai arin-arin bat esku artian artzen danian, arriskuz artzen da. Ingumak atzemon ordukoxe laskituten dira. Eztago euzko-elertijan umientzat egiñiko olerki asko.

Idazti onetan, orratiño, alagalakuak irakurri daikeguz. *Ume itxastarrarena*. Politagorik!”. Eta beste paragrafo batean hau dio: “Arau bardiñez egiña dogu *Txori Donetsija* be. Sabin gaste onen asmuak zelakuak diran dakigunok, ume-olerkiz egindako idaztiño bat ditxarogu”.

UME ITXASTARRARENA

*Bibar, aundia nazanian,
neure ingizko izontzian
itxasora jungo naz, ama;
biar, aundia nazanian...*

*Txipli-txapla, uin-ganetik...
Oi, norarte elduko nazan!*

*Neure ingizko izontziaz
zikiriozko oial zuriak
lotuko dautsodaz, gogorki,
aiziak putzitu dagizan.*

*Txipli-txapla, uin-ganetik...
Oi, norarte elduko nazan!*

*“Izarrak sortzen diran erri
ikusgarrira” elduko naz.
Ta eun izar ta artizar bat
sartuko ditut izontzian.*

*Ontziaren argitasuna
kaiera sartzen nazanian!*

*Aizoial zabal-zabalakin
geldiro sartuko naz portura.
Noren izontziak lekarke
eun izar ta artizar bat?*

*Ontziaren argitasuna
kaiera sartzen nazanian!*

*E, itxastar! –esango dauste–
zeure ingizko izontzian
itxastar gazte! nundik dakark
orrenbeste argi-ondasun?*

*Kaian entzungo dan txalotsa,
nik, edestuko dadanian!...*

*“Izarren sorterritik dakart”
–maitekiro esango dautset–
baña ingizko izontzian
ara ume bat jun bibar da!*

Luis Baraiazarra Txertudi